

PRENTSA IDATZIKO ETA IKUSENTZUTEKO KOMUNIKABIDEETAKO EUSKARA: AZKEN HITZAK

*Leioa, Euskal Herriko Unibertsitatea/
Universidad del País Vasco
1993.05.14*

Juan Mari Lekuona jauna

Euskaltzainburua kanpoan denez, honek behartzen nau, Araudiari jarraituz, haren izenean mintzatzera. Eta nire lehenengo egitekoa, bistan denez, Euskaltzaindiaren izenean denoi agur bero bat opa izatea da. Lan berean ari garenon arteko diosala duzue, geure Erakundearen aldetik zuei egina.

Une honi atxekiz, bidezkoa dirudi nik orain komunikabideek euskararen bitzitan duten garrantzia aipatzea. Aipamen honek ez du izango iritzi kualifikatu baten garrantzirik. Neronek eginiko langintzan eta edukiriko bizikizunetan hartzen dut oinarri, gogoeta bat burutzeko, angelu jakin batetik gauzatuz zer den komunikabideetako hizkeraren balioa.

1. KOMUNIKABIDEETAKO HIZKERAK

Nire eginbide pertsonala komunikazioarekin loturik agertzen da beti. Aritu izan naiz irakaskuntzan eta predikuan, sorkuntza-lanetan eta itzulpen zereginean. Eta egindakoa gogoan, argi eta garbi ikusten dut komunikabideek duten eragin ona hizkuntzaren suztapenean.

Eraskotako literatur estiloak ikus eta entzun daitezke gaur egungo komunikabideetan: idatzizkoa, hala nola kazetetan datorrena; erdi-ahozkoa, idatziz sortzen eta baliatzen dena; eta bapateko mintzoa. Hiru estilo hauek lirateke oso kontuan hartzekoak, hedabideetako euskara ongi bideratzerik nahi bada.

Oso bizia da gai hauei buruz daukagun kontzientzia. Ez da alferrik gertatu, egun hauetan hain zuzen, bi jardunaldi garrantzitsu antolatu izana, desberdinak bezain antz-antzekoak: "Bertsolamintza" alde batetik, eta zuen jardunaldiok bestetik. Haiek ahozko komunikazioan, eta zuek gehienbat idatzizkoan, edota nahi bada, Walter J. Ong-en hitzekin esanez, bigarren mailako ahozkotasunean arreta osoa jarritz.

Eta gaur egun gertatzen den gauza bera gertatu izan da, —mailak eta aldeak barne—, euskal historian zehar. Entzulego bati mintzatu beharrak erakutsi zigun, beste edozein herritakoei bezala, badela jendaurreko hizkera bat, hartzun izateko landu eta menderatu behar dena. Hizkerabide hauek lantzen ahalegindu ziren eliz predikua, testu sakratuen itzulpena, liburu aszetikoak eta kristau-bideak. Eta gauza bera egin dute bai herri-literaturan, bertsolaritzan, pastoraletan, narratibagintzan, eta ez gutxiago literatura idatzian, beti ere aldian aldikoari erantzunik egokienak emanez.

Gaurkoari gagozkiolarik, gauza beretsua gertatu ohi zaigu bai prentsako, bai ikusentzunezko emanaldietan. Beharrezkoak diren oharkizunak eginez, hori bai. Gaurko hedabideetan, idatziz prestaturikoa da askotan jendaurrean hitzez-hitz banatzen dena. Eta bestalde, horrela esaniko testu hori bera gertatzen da gero, prentsak dakarren testuiturri berezietakoa. Beraz, bigarren mailako ahozkotasuna deritzan estiloa ari zaigu indartzen, estilo mintzatua eta estilo idatzia komunikazioko eskabideen arabera uztartzen direla.

Horregatik gaurko giroa euskaraz bizi dugunoi, edo bizi nahi dugunoi, horrek usmarazten digu, hedabideetako hizkera asmatzean eta erabiltzean jokatzeko dugula euskararen etorkizuna.

2. EUSKALTZAINDIAREN AHALEGINA

Hori guztia gogoan, begiaurrean dauka beti Erakundeak, euskararen *corpusa* zaintzea dela Euskaltzaindiaren egiteko nagusia. Adi egon behar du, jabetzeko nolakoa den garaiko euskararen taupada. Zuen arloari dagokionez, beste eginkizun guztien gainetik, arauemailea nahi luke izan, berari dagokionez. Eta horretarako ikerketa-eremu asko lantzen ditu, batzorde ezinbestekoak lanean jarriz. Eta ahalegin guztia jartzen du bere zereginik mamitsuenetan: hiztegitintzan, gramatikari, onomastikan, hizkuntz atlasan, literaturan eta dialektologian. Fruntsezko lanak dira, zuek asmatu nahi baduzue komunikabideek gaur eskatzen duten hizkerabidean.

Bestalde, zuen egoera jakina ikusita, sentiberatasun bat azaldu nahi luke, gaur euskarak bizi duen bidagurutze honetan zuen profesioiko euskaraz bizi duen kinkaz jabetu zaitezten. Eta sentiberatasun hau nolerebait mamitzeko zilegi bekit jardunaldiotan egoniko mintzatzaile baten ikuspegia hona ekartzea.

Lehenik uko egin behar zaio erdararen murruntzari, eta hau ez da beti erraza gertatzen itzulpengintzaz hainbeste baliatu behar den arlo honetan. Bigarren, uko egin behar zaio erregistroak egoki ez erabiltzeari, testua gogorra, irents-gaitza eta heldugabea bihurtuz. Eta hirugarrenik, bereziki saiatu behar du hizkerak berea izan behar duzen zuzentasuna, jatoritasuna eta ulergarritasuna eskuratzen. Kontuan hartu beharreko oharkizunak dira, eguneroko arazoetan lagun gaitzaten, gorarik ezar ditzagun geure hizkuntzarekiko helburuak.

Euskararekiko senaz eta sentiberatasunaz aparte, bada beste alderdi bat aipatu nahi nekeena hemen: euskal arloan auresku izateak dakarren lana eta ne-

kea. Euskara noranahikoa izan dadila nahi badugu, lizardiar esakera erabiliz, ezerk ez gaitu jareingo lana burutsu eta gogotsu egitetik, sena bizkorra eta egokitua izatetik, idazle-hiztun maila jaso eta jantzia edukitzetik. Eta hau guztia saiatze etenezina da, idazle eta esatari onen fruitu nekeza bezain atsegintsua. Honek neur-tzen du geure zereginaren zailtasuna eta meritu guztia.

Euskaltzaindiak, hainbat euskaldun borondateko onekoen izenean, eskertzen dizue bizkarreratu duzuen zama. Eta zoriontzen ere bai, lortu dituzuelako zuen helburuak eta ardietsi, gainera, lan bikainak. Eta berriro ere agur, Euskaltzaindiaren izenean.